

Udaleko sototik

# Azpikalde iluna

Juan Carlos Lopez.

**U**daltxe azpikaldean jarri den Liburutegi Nagusia zabaltzeko, Liburuaren Eguna aukeratu dute. Ezin zitekeen beste modura izan.

Ikusi eta gero zein zen Konstituzio plazako eraikinaren egoera, prozesu luzea zabaldu zen liburutegia leku egoki batera eramateko. Bilakaera honek hain gurea den eztabaida sortu zuen, baina azkenean begirada guztiak azpikalde ezagunetara zuzendu ziren.

Ez da behin betiko kopapena, baina izan beharko luke. Garai batean azpikalde hauei «erakusketen gela» izena eman zitzaion, baina han antolatu zirenak dendetako erakusleihoak baino ez ziren. Ez dezagun ahaztu gainera, kongresu, azoka eta era guztieta-ko bilerekin bete behar diren mila milioika metro karratuetan, mila milioika pezeta gastatzen ari garela. Hauek beste leku batera eramatea



Argazkia: Inarri Otegi

Eztabaida bat baino gehiago eragin ondoren, ostiral honetan zabalduko da udal liburutegi berria udaltxe azpikaldean.

Kursaala traizionatzea litzateke.

Liburuz eta apalategiz josita eta punta-puntako zerbitzu eta teknologiaz lagunduta dagoen azpikaldeen irudia, inguru honek ezagutu duen atsegina izan da. Administrazio gune horri kosk kulturala egitearen pentsatze hutsez, ahogozoa egiten zait.

Politikak jarraituko du beste auke-

ra bat bilatzen, nahiz eta liburutegiak behin behin behinekotasunari gogor eutsi diola dirudien. Urte askotarako.

Eta datu bat erraz ernegatzen direnentzat. Donostiarekin senidetuta dagoen hirietako bat Wiesbadem da. Ba al dakizue udaltxe azpian zer dagoen? Udal garagardotegia adiskideak! On egin.

## ● SOTOTIK TXULORA

### ■ Zinemaldia, mastak eta banderak

Kursaal elkarteak Zinemaldiko filmeak iragartzeko kartel erraldoiak non eta nola kokatu behar diren aztertzeko argazki muntaia egitea eskatu du. Gogora ezazue datorren edizioa kubo-etan egingo dela. Zinemaldiaren beste arazoetako bat jarri behar diren 24 masten kokalekua da, Moneok ez baitu gustuko here eraikinetan jartzea.

### ■ Matiako inguraketa

Ibaeta-Amara errepeidea zabaldu eta gero, debekatuta dago Pio Baroja kaletik Matia kalera zuzenean joatea sor daitezkeen kotxe ilarak saihesteko. Matia kalera joan nahi dutenek Ondarretako gasolindegia inguratu beharko dute. Horretarako errepeide bikoitza zabaldu da. Metro batzuk gehiago egin behar dira, beharrezkoak direnak diotenaren arabera.

Argitarapen honen editorko laguntza:

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa  
fundación